



464 ZB.KO DEKRETUA.

Oiartzungo haranean, bi mila eta hamarreko maiatzaren hamazazpion.

Jendaurrean zabaldu gabeko prozedura jarraitu eta gero, 2010eko maiatzaren 3an Alkate- Lehendakari jaunak emandako 396 zk.ko Dekretu bidez erabaki zuen Atez ateko hiri-hondakinen bilketaren jarraipena egiteko beharrezkoak diren baliabide informatikoen *rentinga* MOBA-ISE MOBILE AUTOMATION, S.L. enpresari behin-behingo esleitzea.

Sektore Publikoaren kontratazioa arautzen duen 30/2007 Legearen 135.4. eta 96.2. artikuluekin adostasunean, hamar egun balioduneko epea eman zitzaion enpresari behin betiko bermea ezarri eta Gizarte Segurantza eta Hazienda zergatan eguneratua dagoen ziurtagiriak aurkez zitzaizkien.

Legearen 135. 4 eta 96. 2. artikuluen arabera, aurreko epea amaitu eta hurrengo bost egun baliodunetan behin betiko bihurtu beharko da esleipena, beti ere behin-behingo esleipendunak bermea eta eskatutako agiriak aurkezten baditu.

Gaiaren inguruan Administrazio Orokorreko Teknikariak egindako txostenean jasotakoa aintzat hartuz, espediente bideratzean aplikagarri diren legezko tramite guztiak bete direla kontuan izanik, Toki Jaurbideak ematen dizkidan ahalmenen egikaritzan, ZERA ERABAKITZEN DUT:

Emandako epean MOBA-ISE MOBILE AUTOMATION, S.L. enpresak bermea ezarri eta aurkeztu beharreko agiriak aurkeztu ditunez, Atez ateko hiri-hondakinen bilketaren jarraipena egiteko beharrezkoak diren baliabide informatikoen *rentingaren* MOBA-ISE MOBILE AUTOMATION kontratua enpresari behin betikoz esleitzea proposatzen da, 28.633,64 €ko prezioarekin (BEZ barne) eta 36 hilabeteko egikaritze epearekin.

Ordainketak Udal Aurrekontuko 1 0501 202 442 002 (A 970/2010) diru atalaren kargura bideratuko da.

Aitor Etxeberria Txurio Alkate-Lehendakari Jn.ak agintzen eta sinatzen du, eta neuk idazkari naizenez, ziurtatzen.

